Bestelako Xedapenak

KULTURA SAILA

3848

AGINDUA, 2010eko uztailaren 28koa, Kulturako sailburuarena, euskarazko literatura-argitalpenetarako laguntzak emateko araubidea ezarri eta deialdia egiten duena.

Hainbat arlotan euskararen zabalkundea suspertu eta, bereziki, euskarazko literatura-lanak argitaratzeko ahalegina sustatzeko xedez, material horiek editatzeko laguntza-bideak ezartzea beharrezkotzat jotzen du Kultura Sailak.

Sail honek bere laguntza eta lankidetza eskaini nahi die argitaletxeei, eta, horretarako, euskarazko edizioak sortarazten dituen gastuak ordaintzera bideratutako diru-laguntzak eman nahi ditu. Diru-laguntzok banatzeko, funts publikoen esleipenetan indarrean egon behar diren objektibotasun, partaidetza eta publizitate printzipioak erabiliko dira.

Ondorioz, hauxe

EBATZI DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honek euskarazko literatura-argitalpenetarako laguntzetarako dei egiten du, eta horiek jasotzeko araubidea ezartzen, 2010. urterako.

Laguntzen helburua da 2010. urtean argitalpengintzan diharduten enpresek garatu beharreko euskarazko literatura-lanen urteko edizio-planaren argitalpenkostuen parte bat ordaintzea.

2. artikulua.– Diru-kopuruak.

Helburu hauetarako 455.404 euro erabiliko dira, zeinak indarrean dauden Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu-partidatik aterako baitira.

3. artikulua.– Erakunde onuradunak.

1.– Dealdi honetan aurreikusitako diru-laguntzak eskuratu ahal izateko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administraziotik emandako diru-laguntzak jasotzeko ezarri diren betebeharrak egiaztatu beharko dira, eta zergak eta Gizarte Segurantzako kuotak egunean ordainduta izan beharko dituzte.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo erakunde autonomiadunek ezaugarri bereko beste laguntzaren batzuk eman izana dela-eta horiek itzultzeko edo zigortzeko prozesuren bat orain-

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE CULTURA

3848

ORDEN de 28 de julio de 2010, de la Consejera de Cultura, por la que se regula y convoca la concesión de ayudas a la producción editorial de carácter literario en euskera.

A fin de estimular la difusión del euskera en diferentes campos y, en concreto, incentivar el esfuerzo que supone la publicación de obras literarias en euskera, este Departamento considera imprescindible establecer un sistema de ayudas a la edición de los mencionados materiales.

El Departamento de Cultura quiere prestar su apoyo y colaboración a las empresas editoriales mediante la concesión de subvenciones destinadas a sufragar los gastos derivados de la edición en euskera, subvenciones que se han de regir bajo los principios de publicidad, concurrencia y objetividad que deben presidir la asignación de fondos públicos.

En su virtud,

RESUELVO:

Artículo 1.– Objeto.

La presente Orden convoca y establece para el año 2010, el régimen de subvenciones a la producción editorial en euskera de carácter literario.

Las ayudas están dirigidas a cubrir parte de los costes editoriales del plan de edición anual de obras literarias en euskera a desarrollar por las empresas de carácter editorial correspondiente al año 2010.

Artículo 2.– Recursos económicos.

El importe económico destinado a dicha finalidad es de 455.404 euros que procederán de la correspondiente partida presupuestaria establecida en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco en vigor.

Artículo 3.– Entidades beneficiarias.

1.– Para acceder a las ayudas previstas en esta convocatoria deberán acreditarse los requisitos generales legalmente establecidos para obtener ayudas o subvenciones procedentes de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, debiendo estar las entidades beneficiarias al corriente de sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social.

En todo caso, la concesión y, en su caso, el pago de las subvenciones y ayudas a las entidades beneficiarias de éstas quedarán condicionados a la terminación de cualquier procedimiento de reintegro o

dik ere izapidetzen ari bada, prozesu hori amaitu egin beharko da onuradunei laguntzak eman edo ordaindu ahal izateko.

2.– Deialdi honetan finkatutako betebeharrak betetzen dituzten argitaletxeek eskatu ahal izango dituzte diru-laguntzak. Argitaletxetzat hartuko da, bakarrik, bere gizarte xedearen barruan argitalpengintza izan eta 2008. urtetik 2009. urtera bitartean gutxienez hiru egileren bost liburu argitaratu dituzten merkataritza-erakunde pribatuak.

3.– Ezingo dute deialdi honetako diru-laguntzarik eskatu laguntza publikoak lortzeko zigor administratibo edo penalik duten erakundeek, ezta ere horretarako gaitasuna kentzen dien legezko debekurik dutenek ere. Halaber, ezingo dute diru-laguntzarik eskatu sexu-bereizkeria dela-eta zigor administratibo edo penalik duten erakundeek, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenaren indarrez.

4. artikulua.– Laguntza jaso dezaketen materialak eta oinarrizko betebeharrak.

Argitaletxeek edizio-plan bat aurkeztu beharko dute, eta bertan adierazi 2010ean argitaratuko diren euskarazko literatura-liburuak, aurreko urteetako laguntza hauen edizioetan parte hartu ez dutenak. «Liburu» kontzeptua zer den ulertzeko, Irakurketa, liburu eta liburutegien ekainaren 22ko 10/2007 Legearen definizioa hartuko da gidari. Liburua, era inprimatuan edo irakurgarria den beste edozein euskarritan, argitaratu daiteke.

Aurkezten den edizio-planeko liburuek honako ezaugarriak bete beharko ditu:

a) Jabego intelektualari dagokionez indarrean dagoen arautegia bete beharko dute, bai eta ISBN eta Legezko Gordailua eskuratzeko egin beharreko legeizapide guztiak ere.

b) Paperean inprimatutako lana denean, gutxienez 1.000 aleko tirada izatea, poesia, entsegu eta antzerki-lanetan izan ezik, horietan 750 alekoa nahikoa izango baita.

c) Testuak 50 orrialde hartuko ditu gutxienez, komikiak, haurrentzako liburuek, poesia eta antzerki-lanek salbu.

d) Paperean inprimatutako lana denean, liburudendetan 500 ale gutxienez merkaturatzea, poesia, entsegu eta antzerki-lanetan izan ezik, horietan 350 ale nahikoa izango baita. Eta euskarri digitalean argitaratutako lana denean, argitaletxearena ez den plataforma digital batean salgai egotea.

sancionador que, habiéndose iniciado en el marco de ayudas o subvenciones de la misma naturaleza concedidas por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus organismos autónomos, se halle todavía en tramitación.

2.– Podrán optar a las ayudas objeto de la presente Orden todas aquellas empresas editoriales que reúnan los requisitos establecidos en esta convocatoria, entendiendo por empresas editoriales exclusivamente aquellas entidades privadas de carácter mercantil, independientemente de su lugar de establecimiento, que incluyan dentro de su objeto social la edición de libros, y que hayan publicado entre los años 2008 y 2009 un mínimo de cinco títulos de por lo menos tres autores diferentes.

3.– No podrá concurrir a esta convocatoria la entidad solicitante que se encuentre sancionada administrativa o penalmente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, o se halle incursa en prohibición legal alguna que le inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por discriminación de sexo de conformidad con lo dispuesto en la Disposición Final sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Artículo 4.– Materiales objeto de subvención y requisitos básicos.

Las empresas editoriales presentarán un proyecto de plan de edición, que incluya aquellos libros de carácter literario en euskera a publicar en el año 2010, y que no hayan concurrido en otras convocatorias anteriores de estas ayudas. Se entenderá el concepto de libro según la definición dada por la Ley 10/2007, de 22 de junio, de la lectura, del libro y de las bibliotecas, pudiendo publicarse de manera impresa o en cualquier otro soporte susceptible de lectura.

Los libros incluidos en el plan de edición presentado deberán reunir las siguientes características:

a) Publicarse cumpliendo con lo dispuesto en la normativa vigente en materia de propiedad intelectual, y cumplimentando los trámites legales para la asignación del ISBN y del Depósito Legal.

b) En los casos de publicación impresa en papel, tener una tirada, de un mínimo de 1.000 ejemplares, excepto para las obras de poesía, ensayo y teatro que será de 750 ejemplares.

c) Poseer un texto mínimo de 50 páginas, exceptuando los cómics, los libros infantiles, los de poesía y las obras de teatro.

d) En los casos de publicación impresa en papel, comercializar en las librerías un mínimo de 500 ejemplares, salvo las obras de poesía, ensayo y teatro en las que será suficiente comercializar 350 ejemplares. Y en los casos de publicación en soporte digital, estar presente para su comercialización en alguna plataforma digital diferente a la de la propia editorial.

e) Liburuen lehen argitaraldiak izan behar dute. Berrargitalpenak ere izan daitezke, baina aurreko argitaraldia 10 urte baino lehenagokoa bada. Ez dira lagunduko, aurreko urteetan paperean argitaratutako lanak eta orain euskarri digitalean ateratakoak, edo alderantziz.

f) Izenburu bat ekitaldi berean euskara batuan eta euskalkietako batean argitaratzen bada, argitaletxeak aukeratu egin beharko du bietarik zein aurkeztuko duen laguntza jasotzeko.

g) Onuradun izan daitekeen batek, edo batek baino gehiagok, ekitaldi berean edo ezberdinetan izenburu bera behin baino gehiagotan argitaratuz gero, bertsioa edozein dela ere, laguntza jasotzeko aukera aurkezten den lehenengo lanak baino ez du izango.

h) Izenburu bat urte berean euskarri batean baino gehiagotan argitaratzen bada, horietako bat bakarrik aurkeztu ahal izango du argitaletxeak.

5. artikulua.– Bazterketak.

Ez dira diruz lagunduko ondoko sailetariko batean sarturik dauden liburuak:

a) Testu-liburuak, entziklopediak, hiztegiak eta hezkuntzara zuzendutako argitalpenak.

b) Bibliofilo-liburuak eta argitalpen mugatua eta numeratua dutenak.

c) Eguneratu daitezkeen lanak, atalka argitaratuak eta koadernatu gabeko orrietan argitaratutakoak, lan osoari kalterik egin gabe kendu edo alda daitezkeen zatiak dituztenak.

d) Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutakoak.

e) Agindu honen laguntzak eskuratzerik ez duten entitateen aginduz (erakunde publikoak, argitaletxe ez diren enpresak, irabazteko asmorik gabeko entitateak...), onuradun izan daitezkeen entitateek egindako argitalpen-lanak.

f) Beste laguntza batzuk eskuratu dituzten argitalpen-lanak, kostu osoaren % 50ekoak edo hortik gorakoak badira. Era berean, onuradun izan daitekeen entitate batek agindu honen laguntzak eskuratzerik ez duten beste entitateekin batera lankidetzan argitaratutako liburuak.

g) Liburugileak berak argitaratutako lanak, salgarri ez direnak eta argitaratzaileak berak egindako antologiak.

h) Epeka saltzeko argitalpen-lanak, eta liburuklubek edo antzekoek bazkideentzat eta atxikientzat bakarrik argitaraturikoak.

i) Albumak, ebakigarriak, pintatzeko liburuak, eranskailudunak, denbora-pasakoak, kaligrafia koadernoak eta haurrentzako testurik gabeko liburuak.

e) Deben ser primeras ediciones, o bien reediciones de títulos cuya edición anterior date de más de 10 años. No se subvencionarán títulos editados en años anteriores en papel, y editados ahora en digital, o viceversa.

f) En el supuesto de que un mismo título se edite, en un mismo ejercicio, en euskera batua y en alguno de los dialectos del mismo, la editorial deberá escoger la versión de la obra susceptible de ser subvencionada.

g) En el caso de presentación de un mismo título en cualquier versión, por una o distintas posibles entidades beneficiarias, en el mismo o diferentes ejercicios, únicamente será susceptible de ser subvencionada la primera que se presente.

h) Si el mismo título es editado en el mismo año en más de un soporte, la editorial deberá presentar sólo uno de ellos.

Artículo 5.– Exclusiones.

No serán objeto de subvención mediante la presente convocatoria aquellos libros que se encuentren incluidos en alguno de los apartados que a continuación se mencionan:

a) Libros de texto, enciclopedias, diccionarios y los dirigidos al mundo de la enseñanza.

b) Libros de bibliófilo y obras con edición limitada y numerada.

c) Obras actualizables, editadas en fascículos y las editadas en hojas no encuadernadas, cambiables o suprimibles sin detrimento de su conjunto.

d) Obras subvencionadas por el Gobierno Vasco.

e) Obras publicadas por entidades susceptibles de ser beneficiarias por encargo de las entidades que no puedan optar a las ayudas (instituciones, empresas no editoriales, entidades sin ánimo de lucro…) objeto de la presente Orden.

f) Obras que reciban otras ayudas o colaboraciones si son iguales o superiores al 50% del precio de coste, y las que sean publicadas en régimen de coedición entre una entidad susceptible de ser beneficiaria y una o varias entidades que no puedan optar a las ayudas objeto de la presente Orden.

g) Obras publicadas por sus propios autores, obras no venales y antologías realizadas por el mismo editor.

h) Obras para su venta a plazos, y obras editadas por Clubes del Libro o similares que sólo sean accesibles a socios o adheridos.

i) Álbumes, recortables, libros de pintar y colorear, libros con adhesivos, pasatiempos, cuadernos de caligrafía y libros infantiles sin texto.

j) Urtekariak, aldizkako argitalpenak eta eranskinak edo horien zenbaki monografikoak, dietarioak eta antzekoak.

k) Ale berean euskarazkoaz gain beste hizkuntza bateko testuak dituztenak.

l) Liburu itxuraz koadernaturiko fotokopiak.

6. artikulua.– Eskabideak.

1.– Agindu honetako diru-laguntzak jasotzeko eskabideak Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeari zuzenduko zaizkio eta Kultura Sustatzeko Zuzendaritzan aurkeztuko dira (Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz), edo Bizkaiko Lurralde Zerbitzuan (kale Nagusia, 85 - 48011 Bilbao) edo Gipuzkoako Lurralde Zerbitzuan (Andia, 13 - 20004 Donostia-San Sebastián), zuzenean edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritako bideetatik edozein erabiliz.

Entitate eskatzaileak I. eta II. eranskinetan eskatutako datuak beteko ditu, eta bertan adierazitako dokumentazioarekin batera aurkeztu.

2.– Datuak ematerakoan gezurretan ibili edo irregulartasunak eginez gero, Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak akats hori egin duen argitaratzailearen liburuei diru-laguntzarik ez ematea edo laguntza zati bat kentzea erabaki dezake.

7. artikulua.– Eskabideak aurkezteko epea.

Eskabideak aurkezteko epea agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen egunaren biharamunean hasi eta 2010eko irailaren 30ean bukatuko da.

8. artikulua.– Aurkeztutako eskabideetako akatsen zuzenketa.

Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, ikusten bada zerbait falta dela edo errakuntzak daudela, eskatzaileari eskatuko zaio akatsa zuzendu dezan edo falta diren dokumentuak aurkez ditzan, eta horretarako hamar egun balioduneko epea emango zaio, dagokion jakinarazpena jasotzen den egunaren biharamunetik kontatuta. Era berean, ohartarazi egingo zaio ezen, epe hori igaro eta zuzenketarik egin ez bada, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, aurrez jakinaraziko zaion ebazpen baten bidez, edo dagokion izapidea egiteko eskubidea galduko duela.

9. artikulua.– Laguntzak kudeatuko dituen organoa.

Kultura Sustatzeko Zuzendaritzari dagokio deialdi honetan aurreikusitako laguntzen kudeaketa-zereginak betetzea.

10. artikulua.– Balorazio Batzordea.

1.– Balorazio Batzordeari dagokio aurkeztutako eskabideak aztertzea, agindu honen 4. artikuluan ezarri-

j) Anuarios, publicaciones periódicas y separatas o números monográficos de éstas, dietarios y similares.

k) Obras que contengan textos en otra lengua, además del euskera.

l) Fotocopias encuadernadas en forma de libro.

Artículo 6.– Solicitudes.

1.– Las solicitudes para acogerse a la subvención objeto de la presente Orden se dirigirán al Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes y se presentarán en la Dirección de Promoción de la Cultura (c/ Donostia-San Sebastián 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz), o en los Servicios Territoriales de Bizkaia (Gran Vía, 85 - 48011 Bilbao) o de Gipuzkoa (Andía, 13 - 20004 Donostia-San Sebastián), bien directamente, bien por cualesquiera de los medios previstos en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

La entidad solicitante cumplimentará los datos requeridos en los anexos I y II acompañándose de la documentación relacionada en ellos.

2.– En caso de falseamiento de datos o de otras irregularidades, la Dirección de Promoción de la Cultura podrá resolver la exclusión parcial o total de la ayuda de las obras del editor que haya incurrido en esta falta.

Artículo 7.– Plazo de presentación de solicitudes.

El plazo de presentación de solicitudes se iniciará el día siguiente a la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco, y finalizará el 30 de septiembre de 2010.

Artículo 8.– Subsanación de defectos en la solicitud presentada.

En el supuesto de que, analizada la documentación presentada, se observase que ésta es incompleta o defectuosa, se concederá, en su caso, un plazo de diez días hábiles, a contar desde el día siguiente a la notificación de la comunicación en que se ponga en conocimiento del solicitante los defectos observados, para su subsanación, con la indicación de que, transcurrido dicho plazo sin que se haya procedido a la referida subsanación, se le tendrá por desistido de su petición, previa resolución que le será notificada, o se le declarará decaído en su derecho al trámite correspondiente.

Artículo 9.– Órgano de gestión de las ayudas.

Corresponderá a la Dirección de Promoción de la Cultura la realización de las tareas de gestión de las ayudas previstas en la presente convocatoria.

Artículo 10.– Comisión de Valoración.

1.– Corresponderá a una Comisión de Valoración el examen de las solicitudes presentadas, de confor-

tako baldintzak aintzat hartuta. Era berean, batzorde horrek landuko du ebazpen-proposamena eta, ondoren, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeari igorriko. Bertan azalduko dira, hala badagokio, entitate onuradun bakoitzari egokitutako diru-kopurua eta emandako diru-laguntzak modu egokian erabiliko direla ziurtatzeko ongi iritzitako baldintza guztiak.

2.– Balorazio Batzordea osatzerakoan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3.7 artikuluak xedatutakoa errespetatuko da. Honako hauek izango dira batzordekideak:

– Kultura Ondarearen zuzendaria edo horrek izendatutako pertsona. Batzordeburua izango da eta kalitate-botoa izango du, boto-berdinketa gertatuz gero azken erabakia emateko.

– Kultura Sustatzeko Zuzendaritzako bi teknikari, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeak izendatuak. Horietako batek Batzordeko idazkari moduan jardungo du.

– Euskal Editoreen Elkartea proposatutako ordezkari bat.

– Euskadiko Editoreen Elkarteak proposatutako ordezkari bat.

3.– Balorazio Batzordearen osaera Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen ebazpen baten bitartez, lehenengo bilera egin aurretik.

11. artikulua.– Diru-laguntzen zenbatekoa.

1.– Balorazio Batzordeak egiaztatuko du edizio-planetan agertzen diren liburuek 4. artikuluko baldintzak betetzen dituztela. Horren ondotik, liburu bakoitzaren argitalpen-kostuak finkatu, honako bi hauen artean baxuena aukeratuz: enpresa eskatzaileak aurkeztutako informazio ekonomikoa, eta deialdi hau argitaratzen den unean Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzuko argitalpenetarako indarrean dauden prezioetan oinarritutakoa. Argitalpen-kostu hori kalkulatzeko, argitalpengintzaren alorreko adituen iritzia bil dezake Batzordeak.

2.– Liburu bakoitzaren argitalpen-kostuaren kontzeptuan sartzen dira: maketazio-kostu mekanikoak, 1.000 ale –edo hortik beherakoak badira, horiei dagozkienak– inprimatzeko eta koadernatzeko kostuak, jatorrizkoak prestatzeko kostuak (baita itzultzeko gastuak ere, hala badagokio) eta beharrezko argitalpen-diseinuaren kostuak.

3.– Balorazio Batzordeak argitaletxe bakoitzak aurkezturiko edizio-planaren argitalpen-kostua zehaztuko du, hau da, 4. artikuluko baldintzak betetzen dituzten liburu guztien kostuen batuketa, kontuan hartuta

midad a las condiciones establecidas en el artículo 4 de la presente Orden, así como la elaboración y elevación al Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes de la propuesta de resolución correspondiente, la cual, en su caso, contendrá la cuantía de subvención por entidad beneficiaria, así como cualquiera otras condiciones previstas en la presente Orden a los efectos de garantizar el correcto destino de las subvenciones concedidas.

2.– En el momento de formar la Comisión de Valoración, se cumplirá lo establecido en el artículo 3.7 de la Ley de 18 de febrero 4/2005, para la igualdad de mujeres y hombres, y serán miembros de la Comisión de Valoración:

– El Director o Directora de Promoción de la Cultura, o persona en quien delegue, que ejercerá las funciones de Presidente de la Comisión y dirimirá, con voto de calidad, los empates que pudieran producirse.

– Dos técnicos de la Dirección de Promoción de la Cultura, designados por el Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, uno de los cuales actuará como secretario o secretaria de la Comisión.

– Una o un representante propuesto por Euskal Editoreen Elkartea.

– Una o un representante propuesto por el Gremio de Editores de Euskadi-Euskadiko Editoreen Elkartea.

3.– La composición de la Comisión de Valoración se hará pública en el Boletín Oficial del País Vasco mediante Resolución del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, con carácter previo a su primera reunión.

Artículo 11.– Determinación de las subvenciones.

1.– La Comisión de Valoración comprobará que los libros incluidos en los planes de edición cumplen las condiciones establecidas en el artículo 4. Posteriormente, establecerá el coste editorial de cada libro, que será el menor de los dos siguientes: información económica aportada por la empresa editorial solicitante, y los precios en vigor a la publicación de esta convocatoria, para las publicaciones en el Servicio General de Publicaciones del Gobierno Vasco. Para establecer el coste editorial, la Comisión podrá recurrir a asesores expertos en labores editoriales.

2.– Dentro del concepto de coste editorial de cada libro, se entienden incluidos tanto los costes mecánicos de maquetación y la impresión y encuadernación de 1.000 ejemplares (o los que se vayan a hacer si son menos), como la preparación de originales (incluyendo la traducción si fuera el caso) y el diseño editorial necesario.

3.– La Comisión de Valoración establecerá el coste editorial del plan de edición presentado por cada editorial, mediante la suma de los costes de cada uno de los libros que cumplen las condiciones establecidas

lan bakoitzak ezin duela 6.000 euroko kostua gainditu.

4.– Aurkeztutako edizio-planaren argitalpen-kostuen % 70eraino irits daiteke diru-laguntza.

5.– Kasu bakoitzean eman beharreko diru-laguntzaren zenbatekoa zehazteko, proportzionaltasun irizpidea erabiliko da, hau da, guztizko diru-kopurua argitalpen-kostuen araberako proportzioari jarraiki banatuko da edizio-planen egitasmoen artean.

6.– Agindu honetan ezarritako diru-laguntzak bateragarriak izango dira beste erakunde publiko edo pribatu batzuek helburu berarekin emandako beste edozein laguntzarekin, nahiz eta inolaz ere ezingo den kostua gainditzen duen diru-laguntzarik eman. Gainfinantzaketarik gertatuz gero, deialdi honen babesean emandako laguntzari soberakina kenduko zaio.

12. artikulua.– Ebazpena.

1.– Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearri dagokio aurkeztutako eskabideak ebaztea. Gainera, ebazpena interesdun bakoitzari jakinarazi eta onuraduna eta kopuruak zehaztuko zaizkio. Ebazpena 6 hilabeteko epean jakinaraziko zaie interesdunei, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta.

2.– Ebazpena emateko epea igarota, interesdunak bere eskabidea ezetsi dela ulertuko du, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44. artikuluan jasotako ondorioetarako.

3.– Eskatutako laguntzen gaineko ebazpenak emateko eta horiek jakinarazteko epeak direla eta, baldin aplikagarria bada agindu honetako 8. artikuluan aurreikusitakoa, ebazpena emateko epea eten egingo da izapide horrek behar duen beste denboraz, aintzat hartuta jakinarazpena noiz jasotzen den eta erantzuna emateko zein epe dagoen.

4.– Jende guztiak jakin dezan, deialdi honen kontura emandako diru-laguntzen zerrenda osoa, onuradunak, kopuruak eta laguntzen xedea zehaztuta, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

13. artikulua.– Onuradunen betebeharrak.

Agindu honetan araututako diru-laguntzak jasotzen dituzten entitate onuradunek, betiere, honako betebehar hauek izango dituzte:

a) Emandako diru-laguntza onartzea. Horrela, diru-laguntza ematen zaiela jakinarazteko gutuna jaso eta hamabost eguneko epean ez badiote diru-laguntzari espresuki eta idatziz uko egiten, onartu dutela ulertuko da.

b) Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari deialdi honen bidez ja-

en el artículo 4, teniendo en cuenta un coste máximo por obra de 6.000 euros.

4.– La subvención podrá alcanzar hasta el 70% del coste editorial del plan de edición para el que se solicita subvención.

5.– Para la determinación de la cuantía de las subvenciones se utilizará un criterio de proporcionalidad, en virtud del cual la dotación económica se distribuirá entre los proyectos de plan de edición, en proporción siempre a los costes editoriales.

6.– Las subvenciones establecidas en la presente Orden serán compatibles con cualesquiera otras que para el mismo objeto concedan otros organismos públicos o privados diferentes del Gobierno Vasco, sin que, en ningún caso, pueda producirse la sobre financiación. Ante tal supuesto, se reducirá en la cantidad correspondiente al exceso el importe de la ayuda concedida en virtud de la presente convocatoria.

Artículo 12.– Resolución.

1.– Corresponderá al Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes la Resolución de las solicitudes, resolución que será notificada a cada una de las entidades interesadas, determinándose la beneficiaria y la cantidad que le corresponde, en el plazo máximo de seis meses a contar desde el día de la publicación de la presente orden en el BOPV.

2.– Transcurrido el plazo máximo para dictar la Resolución, el interesado podrá considerar desestimada su solicitud a los efectos previstos en el artículo 44 de la Ley de Régimen Jurídico de la Administración Pública y del Procedimiento Administrativo Común.

3.– A efectos de cómputo de los plazos para dictar y notificar la resolución de las ayudas solicitadas, cuando fuera de aplicación lo previsto en el artículo 8 de la presente Orden, el plazo para resolver se suspenderá por el tiempo que aquel trámite requiera, en función de la recepción de la notificación y del plazo para su contestación.

4.– Para general conocimiento, el conjunto de subvenciones concedidas con cargo a esta convocatoria, se hará pública mediante la inserción en el Boletín Oficial del País Vasco de una relación de beneficiarias, cuantías y objeto de las ayudas.

Artículo 13.– Obligaciones de las beneficiarias.

Las entidades beneficiarias de las subvenciones reguladas en la presente Orden deberán cumplir en todo caso las siguientes obligaciones:

a) Aceptar la subvención concedida. En este sentido, si en el plazo de quince días tras la fecha de recepción de la comunicación por la que se notifica la concesión de la subvención las entidades beneficiarias no renuncian expresamente y por escrito a la misma, se entenderá que ésta queda aceptada.

b) Facilitar a la Oficina de Control Económico y al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas la información

sotako diru-laguntzei buruzko informazioa ematea, eskatuz gero.

c) Diru-laguntza eman zaien helbururako erabiltzea. Diruz lagundutako egitasmoaren helburua edo izaera nabarmen aldatzen duen edozein gorabehera gertatuz gero (egileen aldaketa, lanen izenburua, ezaugarri teknikoak, kostuak…), horren berri eman beharko da, idatziz.

14. artikulua.– Diru-laguntzen ordainketa.

Diru-laguntzak bi zatitan ordainduko dira:

a) Lehenengo ordainketa, laguntza osoaren % 75, ebazpena jakinarazi ondoren eta 13.a) artikuluan ezarritako epea ukorik gabe igaro eta gero.

b) Diru-laguntzaren beste % 25a, agindu honetan ezarritako baldintzak bete direla justifikatu ondoren.

15. artikulua.– Justifikazioa.

Diru-laguntza justifikatzeko dokumentazioa 2011ko martxoaren 31 arte aurkez daiteke. Justifikazioa egiteko, honako dokumentazio hau aurkeztu behar da:

a) Diruz lagundutako edizio-planaren exekuzioari buruzko azalpen-memoria zehatza.

b) Diruz lagundutako edizio-planeko lan bakoitza argitaratzeko egindako gastuen jatorrizko fakturak, bai eta faktura horietan zehaztutako gastuen azalpen-zerrenda zehatza ere.

c) Helburu berbererako beste diru-laguntzaren bat jaso bada, eta agindu honen 7. artikuluan aipatzen den unean horren berri ez bazuen, horien zerrenda.

d) Argitalpenaren bi ale, edo edizio digitala eskuratu ahal izatea.

e) Paperean argitaratutakoen kasuetan, egin den ale-kopurua ziurtatzen duen inprimatzailearen egiaztagiria.

f) Paperean argitaratutakoen kasuetan, banatzailearen egiaztagiria, liburu-dendetan zabaltzeko jaso duen liburu kopurua ziurtatzen duena.

16. artikulua.– Baldintzak ez betetzea.

Diru-laguntza ematea eragin zuen edozein baldintza edo betebehar betetzen ez dela egiaztatuz gero, jasotako zenbatekoak eta legezko interesak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko zaizkio, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginekoan (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuak onartua) eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargurako diruque le sea requerida en el ejercicio de sus funciones respecto de las subvenciones recibidas con cargo a esta convocatoria.

c) Utilizar la subvención para el concreto destino para el que ha sido concedida. Se deberá comunicar por escrito cualquier eventualidad que altere sustancialmente el objeto o naturaleza del proyecto subvencionado (autores y autoras, títulos de las obras, características técnicas, costes...).

Artículo 14.– Abono de las subvenciones.

El abono de las subvenciones concedidas se realizará en dos pagos:

a) Un primer abono del 75% a partir de la notificación de la Resolución y transcurrido el plazo establecido en el artículo 13 a) sin haber mediado renuncia.

b) Un último abono por el 25% restante previa la justificación del cumplimiento de las condiciones expresadas en la presente Orden.

Artículo 15.– Justificación.

La justificación documental de la subvención podrá realizarse hasta el 31 de marzo de 2011. Dicha justificación requerirá la aportación de la documentación siguiente:

a) Una memoria explicativa y detallada de la ejecución del plan de edición subvencionado.

b) Facturas originales de los gastos realizados para la edición de cada obra incluida en el plan de edición subvencionado, así como una relación explicativa y detallada de los gastos especificados en dichas facturas.

c) Relación de otras ayudas con el mismo objeto, de cuya efectividad no se tuviera conocimiento en el momento a que se refiere el artículo 7 de la presente Orden.

d) Dos ejemplares de la obra publicada o acceso a la edición digital.

e) En los casos de publicación impresa en papel, certificado de tirada expedido por la imprenta.

f) En los casos de publicación impresa en papel, certificado de la empresa distribuidora acreditando el número de obras recibidas para su distribución en librerías.

Artículo 16.– Supuestos de incumplimiento.

La constatación de la existencia de cualquier supuesto de incumplimiento de las condiciones que motivaron la concesión de la subvención dará lugar, de conformidad y en los términos establecidos en el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, y en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, sobre garantías y reintegros de las subven-

laguntzen berme eta itzultzeei buruzko abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

XEDAPEN GEHIGARRIA

2. artikuluan ezartzen den osoko diru-zenbatekoa aldatu ahal izango da, jasotzen diren eskabide kopurua kontuan hartuta eta Kultura Sailaren beste programa batzuetan agortu gabeko aurrekontu diruatalen erabilgarritasunaren arabera, eta betiere beraien ebazpenaren aurretik. Hau horrela egiten bada, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen ebazpenaren bidez jakinaraziko da.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Administrazio-bidea amaitzen duen agindu honen aurka interesdunak aukerako berraztertze-errekurtsoa jar diezaioke Kulturako sailburuari hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, edo, bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezake Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan bi hilabeteko epean, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Bigarrena.– Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sortuko ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko uztailaren 28a.

Kulturako sailburua,
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.

ciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, a la obligación de reintegrar a la Tesorería General del País Vasco las cantidades percibidas más los intereses legales que procedan.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

El importe global consignado en el artículo 2 podrá ser modificado, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas de ayudas del Departamento de Cultura y con carácter previo a la resolución de las mismas. De la presente circunstancia se dará publicidad mediante Resolución del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, podrán los interesados interponer recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Cultura, en el plazo de un mes a partir del siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o directamente recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses a partir del día siguiente a su publicación.

Segunda.– La presente Orden surtirá efectos desde el día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 28 de julio de 2010.

La Consejera de Cultura,
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.

I. ERANSKINA / *ANEXO I*

DIRU-LAGUNTZA ESKABIDEA: EUSKARAZKO LITERATURA-ARGITALPENETARAKO LAGUNTZAK
SOLICITUD SUBVENCIÓN: AYUDAS A LA PRODUCCIÓN EDITORIAL LITERARIA EN EUSKERA

ESKATZAILEAREN DATUAK/*DATOS DEL SOLICITANTE*

Entitatearen izena / *Denominación de la entidad:* .....
.....
Identifikazio fiskaleko zk. / *N.º identificación fiscal:* .....
Helbidea/*Dirección*: .....
Posta Kodea / *Código postal:* .....
Herria/*Localidad*: .....
Telefonoa/*Teléfono*: ..... Faxa/*Fax*.....
E-mail: .....
Web orria / *Página web:* .....

ESKATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:	*DOCUMENTACION A APORTAR POR LA ENTIDAD SOLICITANTE:*
1.- Entitateari buruzko dokumentazioa	*1.- Documentación relativa a la entidad*
a) Eratze-eskritura eta entitatearen estatutuak.	*a) Escritura de constitución y de los estatutos de la entidad.*
b) Pertsona juridikoaren legezko ordezkariaren NANaren fotokopia eta lege-ahalmena duela egiaztatzen duen ziurtagiria.	*b) Fotocopia del DNI del representante legal de la persona jurídica así como acreditación del poder de representación que ejerza.*
c) IFZaren fotokopia.	*c) Fotocopia del CIF.*
d) Bere kasuan, aurreko ataletan eskatutako dokumentazioaren ordezko aitorpena. (1)	*d) En su caso, declaración sustitutiva de la documentación exigida en los apartados anteriores. (1)*
e) Zerga gaiei eta Gizarte Segurantzari dagozkionak kitatuta dituela egiaztatzen duen ziurtagiria. (2)	*e) Certificación acreditativa de hallarse al corriente de sus obligaciones tributarias y de Seguridad Social. (2)*
f) Entitate eskatzaileak sinatutako erantzukizunpeko adierazpena, egiaztatzen duena erakundeak ez duela zigor administratibo edo penalik diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko, ez eta horretarako gaitasuna kentzen dion legezko debekurik ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legezko azken xedapenetako seigarrena urratuz, sexu-diskriminazioa egiteagatik debeku horrekin zigortuta daudenak barne.	*f) Declaración responsable de la entidad solicitante, de que no se encuentra sancionada administrativa o penalmente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, ni se halla incursa en prohibición legal alguna que la inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por discriminación de sexo de conformidad con lo dispuesto en la Disposición Final Sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, pra la Igualdad de Mujeres y Hombres.*
2.- Jarduerari buruzko dokumentazioa.	*2.- Documentación relativa a la actividad.*
a) Edizio Plana, horrek jasoko ditu 2010ean argitaratuko diren euskarazko literatura-liburuak, liburu bakoitzaren edukia, idazlearen jarduera eta argitaratzeko epea aipatuz.	*a) Plan de Edición, incluyendo los libros de carácter literario en euskera a publicar en el año 2010, e indicando para cada uno su contenido, trayectoria del autor, y el plazo estimado de edición.*
b) Xede berberaz eskatutako beste diru-laguntzen zerrenda. (3)	*b) Relación de otras solicitudes de subvención instadas para el mismo objeto. (3)*
c) Argitaletxearen 2009ko katalogoa.	*c) Catálogo editorial del año 2009.*
d) Itzulpenak direnean, jatorrizko liburuaren ale bat.	*d) En el caso de traducciones, un ejemplar de la obra original.*
e) II. eranskina betetzea, 2010eko Edizio Planaren proiektuan sarturiko liburu bakoitzaren datuekin.	*e) Cumplimentación del anexo II para cada libro incluído en el proyecto de plan de edición 2010.*
f) Liburu bakoitzeko, egile-eskubideak dituen titularraren adostasuna edo jabari publikoko erregimenean dagoela egiaztatzen duen agiria.	*f) Para cada libro, documentación acreditativa de la conformidad del titular del derecho de autor o justificación de encontrarse la obra en régimen de dominio público.*

.....(e)n, eko .....ren .....(a)n
En ....., a ..... de ..... de

Sinadura / *Firma: (4)*

Eskabide honetan bildutako datu pertsonalak Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoari lotutako fitxategi batean sartu eta bertan tratatuko direla jakinarazten dizu Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak.

Nahi izanez gero, Legean aurreikusitako sarbide, zuzenketa, deuseztapen eta aurkakotasun eskubideak erabil ditzakezu; horretarako, idazki bat bidal beharko diozu fitxategiaren ardura duen Kultura Sustatzeko Zuzendaritzari (Donostia kalea, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

La Dirección de Promoción de la Cultura del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco, le informa que los datos personales contenidos en la presente solicitud van a ser incorporados para su tratamiento en un fichero automatizado sujeto a lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999, de Protección de Datos de Carácter Personal.

Si lo desea, puede ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición, previstos por la Ley, dirigiendo un escrito a la Dirección de Promoción de la Cultura responsables de dicho fichero, calle Donostia-San Sebastián, n.º 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOARI BURUZKO OHARRAK

(1) 1.a), b) y c) puntuetan eskatutako entitate eskatzaileari buruzko dokumentazioa administrazio honetan baldin badago, ez da berriz aurkeztu behar, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Jardunbide Komunaren azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35.f artikuluak xedatutakoaren arabera.

Hala bada, aitorpenaren bidez egiaztatu behar da dokumentazioa indarrean dagoela eta, gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko zein organotan edo bulegotan aurkeztu zen, edo zeinek egin zuen.

(2) Zerga-zorrak kitatuta dituela egiaztatzen duen ziurtagiria, gehienez eskabidea aurkezten den unetik hiru hilabete lehenagokoa izango da, eta organo eskudunak emana. Dena den, dokumentazio hori dela eta, jardunbideak irauten duen bitartean eskatzen zaizkion ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu onuradunak.

(3) Beste edozein erakunderi, pribatu zein publikori, xede berberaz eskatutako diru-laguntza guztiak zehaztu behar dira eta diru-laguntza horien egoeraren berri eman (ukatua, erantzunaren zain, emana eta diru-kopurua).
Beste diru-laguntzarik eskatu ez bada, zinpeko aitorpenaren bidez egiaztatuko da.

(4) Eskabidea legezko ahalmena duen pertsonak izenpetuko du.

NOTAS ACLARATORIAS SOBRE LA DOCUMENTACION A APORTAR.

(1) Cuando la documentación relativa a la entidad solicitante exigida en los puntos 1.a), b) y c), se halle en poder de esta Administración, de conformidad al artículo 35.f) de la Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, no será necesario volver a presentarla.

En este caso, se deberá aportar declaración en la que se haga constar que dicha documentación se halla plenamente vigente, detallando la fecha y el órgano o dependencia de la Administración General de la CAE en que fueron presentados o, en su caso, emitidos.

(2) La certificación acreditativa de hallarse al corriente de las obligaciones tributarias, deberá haber sido emitida por el órgano competente con no más de tres meses de antelación a la fecha de solicitud. No obstante la beneficiaria estará obligada a presentar cuantas certificaciones sobre este extremo se le exijan durante la sustanciación de todas las fases del procedimiento.

(3) Habrá de detallarse toda subvención instada a cualquiera otra entidad, pública o privada, para el mismo objeto, detallándose el estado de la misma (denegada, pendiente de contestación, concedida e importe). En caso de no haberse solicitado ninguna otra subvención, habrá de presentarse declaración jurada acreditativa de tal extremo.

(4) Quien firme la solicitud habrá de coincidir con quien ostente la representación legal de la entidad.

II. ERANSKINA / *ANEXO II*

LIBURUAREN DATUAK / *DATOS DE LA OBRA*

I.- LIBURUAREN DATU OROKORRAK / *DATOS GENERALES DEL LIBRO.*

Liburuaren izenburua / *Título del libro:* …….....

Lan mota / *Tipo de obra*

Sorkuntza / *Creación*	☐
Itzulpena / *Traducción*	☐
Moldaketa / *Adaptación*	☐

Genero literarioa / *Género literario*

Eleberria/*Novela*	☐
Ipuinak/*Cuentos*	☐
Poesia/*Poesía*	☐
Antzerkia/*Teatro*	☐
Saiakera eta Humanitateak / *Ensayo y Humanidades*	☐
Haur eta gazte / *Infantil y juvenil*	☐
Komikiak/*Cómic*	☐

Argitalpen saila / *Colección editorial:* .....
Egilearen izena / *Nombre del autor o autora:* …….....
Itzultzailearen izena / *Nombre del traductor o traductora:* …….....

Salneurria BEZ barne / *Precio IVA incluido:* ☐☐,☐☐ €.

Or.-Kopurua / *N.º páginas:* .....

Tirada: ……..... ale /*ejemplares* (laguntza eskatzen duen argitaletxeak, hizkuntza batean baino gehiagotan batera argitaraten badu liburua, esan tirada osoa / *Si la editorial solicitante edita simultáneamente la obra en varias lenguas, indicar la tirada total).*

Tirada osoa / *Tirada total:* ..... ale /*ejemplares*

Berrargit. gaurkotua edota osatua */ Reedición actualizada y/o aumentada:* Ez/*No* ☐ Bai/*Si* ☐

Aurreko edizioaren data */ Fecha de la edición anterior:* ..... / ..... / .....

II.- LIBURUAREN EZAUGARRI TEKNIKOAK / *CARACTERÍSTICAS TÉCNICAS DE LA PUBLICACIÓN EN PAPEL.*

Formatua cm-tan / *Formato en cm* ☐☐ x ☐☐

Gutxi gorabeherako karaktere kopurua / *N.º aproximado de caracteres:* .....

Azala mota / *Tipo de portada:*

Kuadernaketa / *Encuadernación*		Inprimaketa / *Impresión*	
Paperezko azala / *Rústica*	☐	Tinta 1 / *1 tinta*	☐
Azal gogorra / *Tapa dura*	☐	2 tinta / *2 tintas*	☐
		3 tinta / *3 tintas*	☐
		4 tinta / *4 tintas*	☐

Barrualdea / *Interior*:

Paper mota / *Tipo de papel*		Inprimaketa / *Impresión*	
Offset/*Offset*:	☐☐☐ gr	Tinta 1 / *1 tinta*	☐☐☐
Couche/*Couché*:	☐☐☐ gr	2 tinta / *2 tintas*	☐☐☐
		3 tinta / *3 tintas*	☐☐☐
		4 tinta / *4 tintas*	☐☐☐

Ilustrazio kopurua / *N.º ilustraciones:*

Z-B/*B-N:* ☐☐☐
Kolorea/*Color*: ☐☐☐

Argazki kopurua / *N.º fotografías:* ☐☐☐

III.- LIBURUAREN EZAUGARRI TEKNIKOAK / *CARACTERÍSTICAS TÉCNICAS DE LA PUBLICACIÓN DIGITAL.*

Gutxi gorabeherako karaktere kopurua / *N.º aproximado de caracteres:* .....

Ilustrazio kopurua / *N.º ilustraciones:*

Z-B/*B-N:* ☐☐☐
Kolorea/*Color*: ☐☐☐

Argazki kopurua / *N.º fotografías:* ☐☐☐

Formato de edición / *Edizio-formatua:* .....

IV.- LIBURUAREN KOSTUA */ COSTE DEL LIBRO EN PAPEL*

Itzulpena/*Traducción*: .....

Testua prestatzea / *Preparación de originales:* .....

Ilustrazioak edo argazkiak / *Ilustraciones o fotografías:* .....

Azalaren diseinua / *Diseño de portada:* .....

Maketazioa/*Maquetación:* .....

1.000 aleren (edo egin behar direnen, tirada txikiagoa ba da) inpresioa eta kuadernaketa
Impresión y encuadernación de 1.000 ejemplares (o los que se vayan a hacer si la tirada es menor): .....

Guztira eurotan / *Total euros:* .....

V.- LIBURUAREN KOSTUA */ COSTE DEL LIBRO DIGITAL*

Itzulpena/*Traducción*: .....

Testua prestatzea */ Preparación de originales:* .....

Ilustrazioak edo argazkiak / *Ilustraciones o fotografías:* .....

Azalaren diseinua / *Diseño de portada:* .....

Maketazioa / *Maquetación:* .....

Guztira eurotan / *Total euros:* .....

VI.- ADOSTASUN-AGIRIA */ DOCUMENTO DE CONFORMIDAD*

……..…… ……..jaun/andreak, ……entitatearen izenean, eskabide-fitxa honetan emandako datuak egiazkoak direla eta liburua argitaratzeko eskubidedun dela adierazten du, hartarako beharrezko lege-neurriak zuzen bete dituelarik	*D./Dña.: …….. ……..en representación de la entidad…… declara que los datos expuestos en la presente ficha de solicitud son ciertos y que, asimismo, es poseedor de los derechos para la publicación del libro, habiendo cumplimentado a tal efecto los requisitos legales pertinentes.*

Lekua / *Localidad*:..... Data / *Fecha*:.....

Sinadura / *Firma*: Zigilua / *Sello*: